Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

# Fundación HAZI Fundazioa

2017

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

# AURKIBIDEA/ÍNDICE


LABURZAPENAK ........................................................................................ 5

I. SARRERA ........................................................................................ 7

II. IRITZIA ........................................................................................ 8

II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia ............................................................. 8
II.2 Kontuei buruzko iritzia ............................................................. 8

III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEN ETA KUDEAKETA PROZEDUREN GAINEKO IRIZPENAK ........................................ 9

III.1 Langileria ............................................................. 9
III.2 Kontratazioa ............................................................. 9

IV. URTEKO KONTUAK ........................................................................ 10

ERANSKINAK ........................................................................................ 13

A.1 Araudi aplikagarria ............................................................. 13
A.2 Taldeko eta kidetutako entitateetan inbertsioak epe luzera .................. 14
A.3 Merkataritzako zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk .............. 14
A.4 Ekitaldiko soberakinari egotzitako dirulaguntzak ................................ 15
A.5 Langileria-gastuak ............................................................. 15
A.6 Jardueraren beste gastu batzuk ............................................................. 15
A.7 Kontratazioaren analisia ............................................................. 16

ALEGAZIOAK ........................................................................................ 17

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas


ABREVIATURAS ..... 21

I. INTRODUCCIÓN ..... 23

II. OPINIÓN ..... 24

II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad ..... 24
II.2 Opinión sobre las cuentas ..... 24

III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN ..... 25

III.1 Personal ..... 25
III.2 Contratación ..... 25

IV. CUENTAS ANUALES ..... 26

ANEXOS ..... 29

A.1 Normativa aplicable ..... 29
A.2 Inversiones en entidades del grupo y asociadas a largo plazo ..... 30
A.3 Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar ..... 30
A.4 Subvenciones imputadas al excedente del ejercicio ..... 31
A.5 Gastos de personal ..... 31
A.6 Otros gastos de la actividad ..... 32
A.7 Análisis de contratación ..... 32

ALEGACIONES ..... 33


Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 28a
Vitoria-Gasteiz, a 28 de noviembre de 2019

Herri - Kontuen Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

## LABURTZAPENAK

| | |
|---|---|
| EAE | Euskal Autonomia Erkidegoa. |
| EBAO | Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala. |
| SPKLTB | Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina. |

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

# I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (aurrerantzean Epaitegia) otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onartutako Lanerako Planean jasotakoari jarraikiz, Hazi Fundazioaren (aurrerantzean, Fundazioa) 2017ko Urteko Kontuak fiskalizatu ditu.

Alderdi hauek aztertu ditu fiskalizazioak:

- Legezkoak: ondasun eta zerbitzuen erosketan, langilerian eta ekonomia-finantzaren kudeaketan indarreko legeria bete dela egiaztatzea.
- Kontularitzakoak: aurkeztutako dokumentazio finantzarioa ezargarri diren kontularitzako printzipioei meneratzen zaiela egiaztatzea.
- Lanean ez da jaso gastuaren efikaziari eta efizientziari buruzko analisia. Nolanahi dela ere, azaleratutako hutsak "Barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak" idazpuruan xehetasunez jaso ditugu.

Fiskalizazio-lana sektore publikoari aplikagarri zaizkion kontu-ikuskapeneko printzipioekin eta arauekin bat etorriz garatu da. Horretarako, egoera bakoitzean beharrezkoak izan diren kontu-ikuskapeneko ohiko hautaketa-probak, prozeduren berrikusteak eta bestelako teknikak egin eta erabili dira, txostenean jasotako irizpenei oinarria emateko; barne hartuz kanpoko kontu-ikuskariek eginiko urteko kontuen kontu-ikuskaritza jasotzen duten lan-paperak berrikustea.

Hazi Fundazioa EAEren Sektore Publikoko Fundazio bat da, Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza, Arrantza Sailak eta Elikadura Sailak sortua 1999ko uztailaren 20an (egungo Garapen Ekonomikoaren eta Azpiegituren Saila).

Helburua da lehiakortasuna, iraunkortasuna eta berrikuntza bultzatu, sustatu eta garatzea bere jardun-eremuan, zeinak besarkatzen baitu lehen mailako sektorea (nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta basogintza), landa eta itsasoko ingurunea eta elikagai industria, balioa emanez eta ondare natural eta kulturalari eutsiz.

# II. IRITZIA

## II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

### LANGILERIA

1. Fundazioak lan kontratu mugagabe bat egin du eta ekainaren 27ko 3/2017 Legearen Hamabosgarren Xedapen Gehigarrian, 2017ko urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoan, finkatutako birjartze-tasa gainditu du.

2. Fundazioak behin eta berriz plantillako egiturazko beharrei aurre egiteko aldi baterako kontratazioak egin ditu eta ondorioz, 2017ko urtean 10 langilek lan kontratu mugagabe ez finkoko izaera eskuratu dute. Aldi baterako enplegua finkatzeko prozesu hau gauzatu da lehia libre, berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publikotasun printzipioak betetzen direla bermatu gabe.

Epaitegi honen ustetan, HAZI Fundazioak, aurreko paragrafoetan aipatutako lege hausteak alde batera, zuzentasunez bete du 2017ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

## II.2 KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, HAZI Fundazioaren 2017ko ekitaldiko Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2017ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, arauan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.

## III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak nahiz kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

### III.1 LANGILERIA

- Fundazioak aldi baterako langileen 5 kontratazio egin ditu Lanbideren bitartez eta beste 7, lan-poltsak erabilita. Lehenengoetan ez dira modu egokian justifikatzen Lanbidek proposatutako izangaietako bakoitzari esleitutako balorazioak. Gainera, hautaketa prozesu hauetatik lan poltsak sortzen dira eta hori ez da deialdian aurreikusi. Lan poltsa bidezko kontratazioetan, berriz, aztertu diren kasuetarik bitan beste kategoria batetarako sortutako poltsak baliatzen dira. Komenigarria litzateke aldi baterako langileen hautaketarako prozedurak eta lan poltsen sorrera eta funtzionamendua arautzea.

### III.2 KONTRATAZIOA (ikus A.7)

- Fundazioak oro har prezioa baloratzeko irizpidean baliatu ohi duen formulak irizpide honentzat aurreikusitako puntu guztiak banatzea eragozten du.

Herri - Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

# IV. URTEKO KONTUAK

## A. EGOERAREN BALANTZEAK 2017 eta 2016ko abenduaren 31n

Euroak milakotan

| AKTIBOA | ERANSKINA | 2017 | 2016 |
|---|---|---|---|
| **AKTIBO EZ ARRUNTA** | | **5.732** | **6.316** |
| Ibilgetu ez-materiala | | 360 | 375 |
| inbertsio materialak | | 958 | 977 |
| Taldeko eta kidetutako entitateetan inbertsioak epe luzera | A.2 | 2.890 | 2.917 |
| Epe luzeko finantza-inbertsioak | | 100 | 86 |
| Administrazio publikoekin beste kreditu batzuk | | 1.424 | 1.961 |
| **AKTIBO ARRUNTA** | | **10.348** | **9.252** |
| Izakinak | | 100 | 75 |
| Jardueraren erabiltzaileak eta bestelako zordunak | | 384 | 336 |
| Merkataritzako zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk | A.3 | 7.121 | 5.316 |
| Aldizkatzeak epe laburrera | | 211 | 282 |
| Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk | | 2.532 | 3.243 |
| **AKTIBOA, GUZTIRA** | | **16.080** | **15.568** |

| ONDARE GARBIA ETA PASIBOA | | |
|---|---|---|
| **ONDARE GARBIA** | **8.020** | **9.074** |
| Funts propioak | 6.016 | 7.070 |
| Fundazioaren dotazioa | 2.671 | 2.671 |
| Erreserbak | 4.277 | 4.277 |
| Aurreko ekitaldien emaitzak | 122 | 1.233 |
| Ekitaldiaren emaitza | (1.054) | (1.111) |
| Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak | 2.005 | 2.004 |
| **PASIBO EZ-ARRUNTA** | **988** | **1.713** |
| Taldeko eta kidetutako enpresekiko epe luzeko zorrak | 31 | 61 |
| Epe luzeko zorrak | 958 | 1.652 |
| **PASIBO ARRUNTA** | **7.072** | **4.781** |
| Taldeko eta elkartutako enpresekiko epe laburreko zorrak | 33 | 33 |
| Epe laburreko zorrak | 1.318 | 1.147 |
| Merkataritzako hartzekodunak eta kobratzeko beste kontu batzuk | 5.365 | 3.328 |
| Aldizkatzeak epe laburrera | 356 | 273 |
| **ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA** | **16.080** | **15.568** |

Herri - Kontuen Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

## B. 2017 eta 2016ko ekitaldietako GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

| | ERANSKINA | 2017 | 2016 |
|---|---|---|---|
| Berezko jardueraren sarrerak | | 12.739 | 12.830 |
| Kidetu eta bazkideen kuotak | | 232 | 228 |
| Erabiltzaileen ekarpenak | | 654 | 802 |
| Ekitaldiko soberakinari egotzitako dirulaguntzak | A.4 | 11.853 | 11.800 |
| Salmentak eta merkataritzako jardueraren bestelako sarrerak | | 7.071 | 6.851 |
| Hornikuntzak | | (1.457) | (1.092) |
| Jardueraren bestelako sarrerak | | - | 14 |
| Langileria-gastuak | A.5 | (10.374) | (9.939) |
| Jardueraren beste gastu batzuk | A.6 | (8.968) | (9.400) |
| Ibilgetua amortizatzea | | (233) | (217) |
| Emaitzetara eskualdatutako kapital diru-laguntzak | | 200 | 162 |
| **JARDUERAREN SOBERAKINA** | | **(1.022)** | **(791)** |
| Sarrera finantzarioak | | 6 | 8 |
| Gastu finantzarioak | | (6) | (4) |
| Baliabide finantzarioen kontzeptuko narriadura eta emaitza | | (32) | (323) |
| **FINANTZA ERAGIKETEN SOBERAKINA** | | **(32)** | **(319)** |
| **ZERGA AURRETIKO SOBERAKINA** | | **(1.054)** | **(1.110)** |
| Mozkinen gaineko zerga | | - | - |
| **ERAGIKETA JARRAITUEN EKITALDIKO SOBERAKINA** | | **(1.054)** | **(1.110)** |
| Ondare garbian zuzenean jasotako sarrera eta gastuak guztira | | 200 | 236 |
| Ekitaldiaren soberakinari egindako birsailkapenak | | (200) | (162) |
| Ondare garbiaren bariazioa, egotzitako sarrera eta gastuengatik | | - | 74 |
| **EMAITZA GUZTIRA, EKITALDIAN ONDARE GARBIAREN BARIAZIOA** | | **(1.054)** | **(1.036)** |

Eranskina

Anexo

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

# ERANSKINAK

## A.1 ARAUDI APLIKAGARRIA

2017ko ekitaldian ezargarria den araudi nagusia honako hau da:

- 12/1994 Legea, ekainaren 17koa, Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei buruzkoa eta 9/2016 Legea, ekainaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa. (2016ko ekainaren 14az geroztik indarrean).
- 100/2007 Dekretua, ekainaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duena.
- 101/2007 Dekretua, ekainaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duena.
- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko Aurrekontu Araubidearen Gaietan Indarrean dauden Legezko Xedapenen Testu Bategina onartu eta EAEren Fundazio eta Partzuergoei ezargarria zaien aurrekontuko araubidea arautzen duena.
- 2/2017 Legea, apirilaren 11koa, 2017ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena.
- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bategina onesten duena.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 2011ko urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onesten duena.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, SPKLTB onartzen duena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 3/2004 Legea, abenduaren 29koa, uztailaren 5eko 15/2010 Legea aldarazten duena, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari Buruzkoa.

Ondasun eta zerbitzuen kontratazioari dagokionez, SPKLTBren arabera, Fundazioak aginte esleitzaile izaera du eta bere kontratuak pribatuak dira. Europar Batasuneko gutxieneko mailak (erregulazio harmonizatuari lotuak) gainditzen dituzten kontratuak prestalanari eta esleipenari dagokionez, berariazko araurik ezean, SPKLTBk arautuko ditu. Europar Batasuneko atalaseak gainditzen ez dituztenek, onetsitako eta kontratatzailearen profilean argitaratutako Kontratazioko Barne Jarraibideak aplikatu beharko dituzte esleipenean. Kasu guztietan publikotasun, lehia, gardentasun, konfidentzialtasun, berdintasun eta ez-bazterkeria printzipioak gorde beharko dira. Langileak kontratatzean, sozietate publikoa den aldetik, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioetara meneratua dago.

## A.2 TALDEKO ETA KIDETUTAKO ENTITATEETAN INBERTSIOAK EPE LUZERA

Hona hemen Egoeraren balantzeko idazpuruaren xehetasunak, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n:

Euroak milakotan

| | | | 2017 | 2016 |
|---|---|---|---|---|
| **Ondare baliabideak:** | | | **1.222** | **1.222** |
| Hazilur Enpresen Sustapena SA | | | 1.220 | 1.220 |
| Gomiztegi Elkartea | | | 1.453 | 1.453 |
| Aizkorria S.Coop. | | | 54 | 54 |
| Beste batzuk | | | 3 | 3 |
| Narriadura: | | | (1.508) | (1.508) |
| Gomiztegi Elkartea | (1.453) | (1.453) | | |
| Aizkorria S.Coop. | (54) | (54) | | |
| Beste batzuk | (1) | (1) | | |
| **Entitateei kredituak:** | | | **1.668** | **1.695** |
| Hazilur Enpresen Sustapena SA | | | 2.389 | 2.383 |
| Elikaduraren clusterra | | | 1 | 1 |
| Narriadura: Hazilur Enpresen Sustapena SA | | | (722) | (689) |
| GUZTIRA | | | **2.890** | **2.917** |

## A.3 MERKATARITZAKO ZORDUNAK ETA KOBRATZEKO BESTE KONTU BATZUK

Hona hemen Egoeraren balantzeko idazpuruaren xehetasunak, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n:

Euroak milakotan

| | | | 2017 | 2016 |
|---|---|---|---|---|
| Salmenta eta zerbitzu emakidengatiko bezeroak | | | 471 | 406 |
| Bezeroak, taldeko eta kidetutako entitateak | | | 4.312 | 3.401 |
| Taldeko enpresekiko saldoak: Eusko Jaurlaritza | 2.896 | 1.946 | | |
| Taldeko enpresekiko saldoak: beste batzuk | 97 | 64 | | |
| Kidetutako enpresekiko saldoak: Arabako Foru Aldundia | 211 | 219 | | |
| Kidetutako enpresekiko saldoak: Bizkaiko Foru Aldundia | 182 | 171 | | |
| Kidetutako enpresekiko saldoak: Gipuzkoako Foru Aldundia | 840 | 1.003 | | |
| Kidetutako enpresekiko saldoak: beste batzuk | 90 | 2 | | |
| Narriadura | (4) | (4) | | |
| Langileria | | | 50 | 43 |
| Administrazio publikoekin beste kreditu batzuk | | | 2.288 | 1.466 |
| GUZTIRA | | | **7.121** | **5.316** |

Herri - Kontuen Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

## A.4 EKITALDIKO SOBERAKINARI EGOTZITAKO DIRULAGUNTZAK

Hona hemen 2017 eta 2016ko ekitaldietan ekitaldiaren soberakinari egotzitako dirulaguntzen xehakapena:

Euroak milakotan

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| EAEren Administrazio Orokorra | 11.047 | 11.071 |
| Bizkaiko Foru Aldundia | 107 | 127 |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | 39 | 49 |
| Arabako Foru Aldundia | 18 | - |
| Europar Batasuna | 592 | 553 |
| Beste batzuk | 50 | - |
| **GUZTIRA** | **11.853** | **11.800** |

## A.5 LANGILERIA-GASTUAK

Hona hemen 2017 eta 2016ko ekitaldietako Langile gastuen idazpuruaren eta Galera eta irabazien kontuko plantillaren xehakapena:

Euroak milakotan

| | Langile-gastuak | | Plantilla 12.31n | | Goi |
|---|---|---|---|---|---|
| | 2017 | 2016 | 2017 | 2016 | kargud. |
| Soldatak eta ordainsariak | 8.074 | 7.804 | 188 | 195 | 1 |
| Gizarte zamak eta parekatuak: | | | | | |
| Gizarte Segurantza | 2.242 | 2.062 | | | |
| Beste batzuk | 58 | 73 | | | |
| **GUZTIRA** | **10.374** | **9.939** | **188** | **195** | **1** |

2017ko ekitaldiko ordainsari igoera % 1ekoa da 2016ko ekitaldiko diru-sarrera osoen aldean.

## A.6 JARDUERAREN BESTE GASTU BATZUK

Hona hemen emaitzen kontuaren idazpuruaren xehetasunak, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n:

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Errentamenduak eta kanonak | 48 | 34 |
| Konponketak eta artapena | 72 | 119 |
| Profesional independenteen zerbitzuak | 2.606 | 3.372 |
| Garraioak | 36 | 41 |
| Aseguru primak | 34 | 43 |
| Banku zerbitzuak eta antzekoak | 1 | 2 |
| Publizitatea eta propaganda | 4.794 | 4.010 |
| Hornidurak | 256 | 220 |
| Bestelako zerbitzuak | 1.115 | 1.476 |
| Bestelako gastuak | 6 | 83 |
| **GUZTIRA** | **8.968** | **9.400** |

## A.7 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

2017an esleitutako eta lehenago ekitaldietan esleitu arren, 2017an egikaritu diren espedienteen lagin baten bitartez kontratu mota bakoitzari ezargarriak zaizkion legezko prozedurak aztertu ditugu.

Euroak milakotan

| | Esleipen | | Zenbatekoa | | | AKATSA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| DESKRIBAPENA | urtea | Prozed. | Balio zenbat. | Esleip. | Exekuzioa | A |
| 1. 2017an nekazaritza eta elikagaien industriako zenbait azoka diseinatu, eraiki eta postuak muntatzea | 2016 | Irekia | 400 | a.p. | 254 | A1 |
| 2. Jatorriko kontrataziotik eratorritako gizarte, ekonomia eta kulturako arazoak arintzeko jarduera-zerbitzua | 2017 | Irekia | 155 | 155 | 161 | A1 |
| 3. Euskadin LIDAR hegaldia kontratatzea | 2016 | Irekia | 209 | 171 | 171 | A1 |
| 4. Esparru-akordioa-Nekazaritza sektoreko pertsona ekintzaileei laguntza emateko zerbitzuak | 2016 | Irekia | 1.200 | a.p. | 182 | A1 |
| Sorta 1-Araba | | | a.p. | 45 | | |
| Sorta 2-Araba | | | a.p. | 26 | | |
| Sorta 2-Bizkaia | | | a.p. | 96 | | |
| Sorta 3-Gipuzkoa | | | a.p. | 118 | | |
| Sorta 3-Gipuzkoa | | | a.p. | 64 | | |

a.p.: Aleko prezioak.

Euroak milakotan

| AKATSAK | KOPURUA | ESLEIPENAREN ZENBAT. |
|---|---|---|
| ESPEDIENTEA | | |
| A1 Prezio irizpidea balioztatzeko erabilitako formulak puntu guztiak banatzea eragozten du | 4 | 326 |

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

# HAZI FUNDAZIOAREN 2017. URTEARI DAGOKION FISKALIZAZIOARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

## I. SARRERA

HAZI fundazioaren 2017ko ekitaldiko fiskalizazioaren emaitzei erantzuteko asmoz, fundazioak horri lotuta aurkeztu dituen alegazioak eta justifikazioak erantsi zaizkio txosten honi. Kontrol Ekonomikoko Bulegoak zentralizatu ditu horiek guztiak.

## II. IRITZIA

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

#### LANGILERIA

> *"Fundazioak lan kontratu mugagabe bat egin du eta ekainaren 27ko 3/2017 Legearen Hamabosgarren Xedapen Gehigarrian, 2017ko urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoan, finkatutako birjartze-tasa gainditu du."*

Hazi fundazioa 2013an sortzeko hiru entitatek bat egin ostean, lanpostu hutsak sortu ziren lehen urteetan, bete ez zirenak zuhurtzia-printzipioan eta aurrekontu-aurrezkian oinarrituta, erakundea egituratzen hasia zegoelako eta 2015 eta 2016 urteetarako estrategia pentsatzen ari zelako. Ondorioz, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailak zerbitzu berriak eskatu zituen; premia berri horien ondorioz, kontratazioari ekin zitzaion, aipatu esparruak egoki egituratzeko.

> *"Fundazioak behin eta berriz plantillako egiturazko beharrei aurre egiteko aldi baterako kontratazioak egin ditu eta ondorioz, 2017ko urtean 10 langilek lan kontratu mugagabe ez finkoko izaera eskuratu dute. Aldi baterako enplegua finkatzeko prozesu hau gauzatu da lehia libre, berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publikotasun printzipioak betetzen direla bermatu gabe."*

Aipatu langileetatik zortzik lan-kontratu mugagabeko langile ez-finkoak ziren de facto, 2013 urtea baino lehenago kontratatu baitzituzten, alegia, Hazi fundazioa osatzen duten hiru entitateek bat egin zutenean. Kontratazio-datatik, ez zuten aldaketarik izan kontratuan, eta ez zituzten ere birritan kontratatu; urteen poderioz eskuratu dute aipatu izaera.

Gainerako bi langileak 2013 urtea eta gero kontratatu zituzten aldi baterako; bat, lehia librearen, berdintasunaren, merezimenduen, gaitasunaren eta publikotasunaren printzipioak bermatuta zeuden hautaketa-prozesu batean, eta bestea, 2013 urtea baino lehenago eratutako lan-poltsa batetik (prozedura berarekin sartu zen hautagaia bertan).

Mugagabe bihurtzeko, kontuan hartu ziren egoeran egoerako premiak; enpresek, zerbitzuaren premiak ikusita, aipatu baliabideak eskuratu behar izan zituzten.

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

# III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

## III.1 LANGILERIA

*"Fundazioak aldi baterako langileen 5 kontratazio egin ditu Lanbideren bitartez eta beste 7, lan-poltsak erabilita. Lehenengoetan ez dira modu egokian justifikatzen Lanbidek proposatutako izangaietako bakoitzari esleitutako balorazioak. Gainera, hautaketa prozesu hauetatik lan poltsak sortzen dira eta hori ez da deialdian aurreikusi. Lan poltsa bidezko kontratazioetan, berriz, aztertu diren kasuetarik bitan beste kategoria batetarako sortutako poltsak baliatzen dira. Komenigarria litzateke aldi baterako langileen hautaketarako prozedurak eta lan poltsen sorrera eta funtzionamendua arautzea."*

Aplikatu den prozeduran, aipatu kontratazioak baliozkotu ditu kontratazioetan beraietan izan den enpresa-batzordeko ordezkariak. Mahai horretan adosten dira puntuazioak, eta ez da erreklamaziorik egon hautagaien aldetik, ezta langileen ordezkarien aldetik ere.

Gainerako hautagaiekin lan-poltsak eratu eta erabiltzeko prozedurak, eta enpresa-arlo parekoetan lan-poltsak erabiltzekoak, ezarrita daude jada, eta ez da erreklamaziorik jaso enpresa-batzordearen aldetik urte horretan, beste poltsa batzuk batera eratu eta erabiltzeari buruz.

## III.2 KONTRATAZIO

*"Fundazioak oro har prezioa baloratzeko irizpidean baliatu ohi duen formulak irizpide honentzat aurreikusitako puntu guztiak banatzea eragozten du."*

HAZIn nagusiki erabiltzen den formulari esker (gehiago ere erabiltzen dira), prezioaren irizpidera bideratutako puntu guztiak banatu daitezke (formula horretan, preziorik onenari beti ematen zaio gehieneko puntu kopurua, baldin eta ez bada gertatzen beherakada ezohiko edo neurrigaberen bat, eta hala badago jasota dagokion pleguan).

Irizpide orokorraren arabera, formulak «aukera eman» behar duen arren prezioari esleitutako puntu guztiak banatzeko, azken batean, ezin ditu guztiak banatu (eskaintzen portaera zein den).

2017ko ekitaldian indarrean zen kontratuen legearen testu bateginaren 150.2 artikuluan (3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena) ez da inola ere proposatzen ez zehazten formularik bat ere aipatu irizpide objektiboak ebaluatzeko; hau da, kontratazio-organoa aske da nahi erako balorazio-irizpideak finkatzeko, betiere berdintasunaren, publikotasunaren eta lehia askearen irizpide orokorrak beteta.

Gai korapilatsua da aplikatu behar diren formulena, eta horrek zalantzak eta ziurgabetasuna eragiten ditu, baina bada joera bateratu bat administrazio-kontratazioko

kontsulta-batzorde batzuetan eta aditu zenbaitetan, formula «linealki proportzionalak» erabiltzea aldarrikatzen duena.

Aurrerantzean, kasuan-kasuan egokiena den formula aplikatzeko ahalegina egingo da, araudiaren betekizunak eta kontratazio publikoaren printzipioak beteko direla bermatzea, eta, aldi berean, funts publikoen kudeaketa egoki eta efizientea izatea zainduta.

## ABREVIATURAS

| | |
|---|---|
| CAE | Comunidad Autónoma de Euskadi. |
| CAPV | Comunidad Autónoma del País Vasco. |
| DOUE | Diario Oficial de la Unión Europea |
| TRLCSP | Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público. |

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

# I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas (en adelante el Tribunal), de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el Plan de trabajo aprobado por el Pleno del Tribunal, ha fiscalizado las Cuentas Anuales de la Fundacion Hazi Fundazioa (en adelante, la Fundación), correspondientes al ejercicio 2017.

La fiscalización abarca los siguientes aspectos:

- Legales: el cumplimiento de la legislación vigente en materia de adquisición de bienes y servicios, personal y gestión económico-financiera.
- Contables: el sometimiento de la documentación financiera presentada a los principios contables que resultan de aplicación.
- El alcance del trabajo no incluye un análisis sobre la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias detectadas se detallan en el epígrafe del informe denominado “Consideraciones sobre los sistemas de control interno y procedimientos de gestión”.

El trabajo de fiscalización se ha desarrollado de acuerdo con los principios y normas de auditoría aplicables al sector público, realizándose aquellas pruebas selectivas, revisión de procedimientos y demás técnicas habituales de auditoría que se han considerado necesarias en cada circunstancia para soportar la opinión contenida en el informe, incluida la revisión de los papeles de trabajo que soportan la auditoría de las cuentas anuales efectuada por los auditores externos.

Fundación Hazi Fundazioa es una Fundación del Sector Público de la CAE constituida por el Departamento de Agricultura y Pesca y Alimentación del Gobierno Vasco (actual Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras) el 20 de julio de 1999.

Su objeto es impulsar, promover y desarrollar la competitividad, sostenibilidad e innovación dentro de su ámbito de actuación, que comprende el sector primario (agrícola, ganadero, pesquero y forestal), el medio rural y litoral y la industria alimentaria, contribuyendo a su valorización y al mantenimiento del patrimonio natural y cultural.

# II. OPINIÓN

## II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

### PERSONAL

1. La Fundación ha realizado un contrato laboral indefinido por encima de la tasa de reposición establecida en la Disposición Adicional Décima Sexta de la Ley 3/2017, de 27 de junio, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2017.

2. La Fundación ha realizado repetidas veces contrataciones temporales para cubrir necesidades estructurales de plantilla, lo que ha provocado que en el año 2017, 10 trabajadores adquirieran la condición de personal laboral indefinido no fijo. Este proceso de consolidación de empleo temporal se ha realizado sin garantizar el cumplimiento de los principios de libre concurrencia, igualdad, mérito, capacidad y publicidad.

En opinión de este Tribunal, excepto por los incumplimientos señalados en los párrafos anteriores, la Fundación HAZI Fundazioa ha cumplido razonablemente en el ejercicio 2017 la normativa legal que regula su actividad económico-financiera.

## II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS

En opinión de este Tribunal, las cuentas anuales del ejercicio 2017 de la Fundación HAZI Fundazioa expresan en todos los aspectos significativos la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera a 31 de diciembre, así como de los resultados de sus operaciones y de sus flujos de efectivo correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

## III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN

En este apartado se señalan tanto deficiencias que no afectan de manera relevante al cumplimiento de los principios que rigen la actividad económico-financiera, como aspectos procedimentales que se ponen de manifiesto para la mejora de la gestión.

### III.1 PERSONAL

- La Fundación ha realizado 5 contrataciones de personal temporal recurriendo a Lanbide y 7 utilizando bolsas de trabajo. En las primeras no se justifican adecuadamente las valoraciones asignadas a cada uno de los candidatos propuestos por Lanbide. Además, a partir de estos procesos selectivos se crean bolsas de trabajo, aspecto no previsto en la convocatoria. En cuanto a las contrataciones mediante bolsas de trabajo, en dos de los casos analizados se recurre a bolsas creadas para otra categoría. Sería conveniente regular los procedimientos de selección de personal temporal y el sistema de creación y funcionamiento de las bolsas de trabajo.

### III.2 CONTRATACIÓN (ver A.7)

- La Fundación utiliza de forma generalizada una fórmula en la valoración del precio que impide que se repartan el total de puntos previstos para este criterio.

Herri - Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

# IV. CUENTAS ANUALES

## A. BALANCES DE SITUACIÓN a 31 de diciembre de 2017 y 2016

Miles de euros

| ACTIVO | ANEXO | 2017 | 2016 |
|---|---|---|---|
| **ACTIVO NO CORRIENTE** | | **5.732** | **6.316** |
| Inmovilizado intangible | | 360 | 375 |
| Inversiones materiales | | 958 | 977 |
| Inversiones en entidades del grupo y asociadas a largo plazo | A.2 | 2.890 | 2.917 |
| Inversiones financieras a largo plazo | | 100 | 86 |
| Otros créditos con las administraciones públicas | | 1.424 | 1.961 |
| **ACTIVO CORRIENTE** | | **10.348** | **9.252** |
| Existencias | | 100 | 75 |
| Usuarios y otros deudores de la actividad | | 384 | 336 |
| Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar | A.3 | 7.121 | 5.316 |
| Periodificaciones a corto plazo | | 211 | 282 |
| Efectivo y otros activos líquidos equivalentes | | 2.532 | 3.243 |
| **TOTAL ACTIVO** | | **16.080** | **15.568** |

| PATRIMONIO NETO Y PASIVO | | | |
|---|---|---|---|
| **PATRIMONIO NETO** | | **8.020** | **9.074** |
| Fondos Propios | | 6.016 | 7.070 |
| Dotación fundacional | | 2.671 | 2.671 |
| Reservas | | 4.277 | 4.277 |
| Resultados de ejercicios anteriores | | 122 | 1.233 |
| Resultado del ejercicio | | (1.054) | (1.111) |
| Subvenciones, donaciones y legados | | 2.005 | 2.004 |
| **PASIVO NO CORRIENTE** | | **988** | **1.713** |
| Deudas con empresas grupo y asociadas a largo plazo | | 31 | 61 |
| Deudas a largo plazo | | 958 | 1.652 |
| **PASIVO CORRIENTE** | | **7.072** | **4.781** |
| Deudas con empresas del grupo y asociadas a corto plazo | | 33 | 33 |
| Deudas a corto plazo | | 1.318 | 1.147 |
| Acreedores comerciales y otras cuentas a pagar | | 5.365 | 3.328 |
| Periodificaciones a corto plazo | | 356 | 273 |
| **TOTAL PATRIMONIO NETO Y PASIVO** | | **16.080** | **15.568** |

## B. CUENTAS DE PÉRDIDAS Y GANANCIAS DE LOS EJERCICIOS 2017 y 2016

Miles de euros

| | ANEXO | 2017 | 2016 |
|---|---|---|---|
| Ingresos de la actividad propia | | 12.739 | 12.830 |
| Cuotas de asociados y afiliados | | 232 | 228 |
| Aportaciones de usuarios | | 654 | 802 |
| Subvenciones imputadas al excedente del ejercicio | A.4 | 11.853 | 11.800 |
| Ventas y otros ingresos de la actividad mercantil | | 7.071 | 6.851 |
| Aprovisionamientos | | (1.457) | (1.092) |
| Otros ingresos de la actividad | | - | 14 |
| Gastos de personal | A.5 | (10.374) | (9.939) |
| Otros gastos de la actividad | A.6 | (8.968) | (9.400) |
| Amortización del inmovilizado | | (233) | (217) |
| Subvenciones de capital traspasadas a resultados | | 200 | 162 |
| EXCEDENTE DE LA ACTIVIDAD | | **(1.022)** | **(791)** |
| Ingresos financieros | | 6 | 8 |
| Gastos financieros | | (6) | (4) |
| Deterioro y resultado por instrumentos financieros | | (32) | (323) |
| EXCEDENTE DE OPERACIONES FINANCIERAS | | **(32)** | **(319)** |
| EXCEDENTE ANTES DE IMPUESTOS | | **(1.054)** | **(1.110)** |
| Impuestos sobre beneficios | | - | - |
| EXCEDENTE DEL EJERCICIO OPERACIONES CONTINUADAS | | **(1.054)** | **(1.110)** |
| Ingresos y gastos imputados directamente al Patrimonio Neto | | 200 | 236 |
| Reclasificaciones al excedente del ejercicio | | (200) | (162) |
| Variación del Patrimonio Neto por ingresos y gastos imputados | | - | 74 |
| RESULTADO TOTAL VARIACIÓN DEL PATRIMONIO NETO DEL EJERCICIO | | **(1.054)** | **(1.036)** |

Eranskina

Anexo

# ANEXOS

## A.1 NORMATIVA APLICABLE

La principal normativa aplicable en el ejercicio 2017 es la siguiente:

- Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco y Ley 9/2016, de 2 de junio, de Fundaciones del País Vasco. (Entra en vigor el 14 de junio de 2016).
- Decreto 100/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Protectorado de Fundaciones del País Vasco.
- Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Registro de Fundaciones del País Vasco.
- Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.
- Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi y se regula el régimen presupuestario aplicable a las Fundaciones y Consorcios del sector público de la CAE.
- Ley 2/2017, de 11 de abril, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la CAE para el ejercicio 2017.
- Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores.
- Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.
- Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el TRLCSP.
- Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales, modificada por la Ley 15/2010, de 5 de julio.
- Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

Respecto a la contratación de bienes y servicios, de acuerdo con el TRLCSP la Fundación tiene la consideración de poder adjudicador y sus contratos son privados. Los contratos que superen los umbrales comunitarios (sujetos a regulación armonizada) se regirán, en cuanto a su preparación y adjudicación, en defecto de normas específicas, por el TRLCSP. Los que no superen dichos umbrales deben aplicar en la adjudicación sus propias Instrucciones Internas de Contratación aprobadas y publicadas en su perfil de contratante. En todos los supuestos deben respetar los principios de publicidad, concurrencia, transparencia, confidencialidad, igualdad y no discriminación. Por lo que se refiere a la contratación de personal, en cuanto que es una sociedad pública, está sometida a los principios constitucionales de igualdad, mérito y capacidad.

## A.2 INVERSIONES EN ENTIDADES DEL GRUPO Y ASOCIADAS A LARGO PLAZO

El detalle de este epígrafe del balance de situación a 31 de diciembre de 2017 y 2016 es:

Miles de euros

| | | | 2017 | 2016 |
|---|---|---|---|---|
| **Instrumentos de patrimonio:** | | | **1.222** | **1.222** |
| Hazilur Enpresen Sustapena, SA | | | 1.220 | 1.220 |
| Gomiztegi Elkartea | | | 1.453 | 1.453 |
| Aizkorria S.Coop. | | | 54 | 54 |
| Otros | | | 3 | 3 |
| Deterioro: | | | (1.508) | (1.508) |
| Gomiztegi Elkartea | (1.453) | (1.453) | | |
| Aizkorria S.Coop | (54) | (54) | | |
| Otros | (1) | (1) | | |
| **Créditos a entidades:** | | | **1.668** | **1.695** |
| Hazilur Enpresen Sustapena, SA | | | 2.389 | 2.383 |
| Clúster de Alimentación | | | 1 | 1 |
| Deterioro: Hazilur Enpresen Sustapena, SA. | | | (722) | (689) |
| TOTAL | | | **2.890** | **2.917** |

## A.3 DEUDORES COMERCIALES Y OTRAS CUENTAS A COBRAR

El detalle de este epígrafe del balance de situación a 31 de diciembre de 2017 y 2016 es:

Miles de euros

| | | | 2017 | 2016 |
|---|---|---|---|---|
| Clientes por ventas y prestaciones de servicios | | | 471 | 406 |
| Clientes, entidades del grupo y asociadas | | | 4.312 | 3.401 |
| Saldos con empresas del grupo: Gobierno Vasco | 2.896 | 1.946 | | |
| Saldos con empresas del grupo: otros | 97 | 64 | | |
| Saldos con empresas asociadas: Diputación Foral de Araba | 211 | 219 | | |
| Saldos con empresas asociadas: Diputación Foral de Bizkaia | 182 | 171 | | |
| Saldos con empresas asociadas: Diputación Foral de Gipuzkoa | 840 | 1.003 | | |
| Saldos con empresas asociadas: otros | 90 | 2 | | |
| Deterioro | (4) | (4) | | |
| Personal | | | 50 | 43 |
| Otros créditos con las Administraciones Públicas | | | 2.288 | 1.466 |
| TOTAL | | | **7.121** | **5.316** |

Herri - Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

## A.4 SUBVENCIONES IMPUTADAS AL EXCEDENTE DEL EJERCICIO

El detalle de las subvenciones imputadas el excedente del ejercicio en los ejercicios 2017 y 2016 es:

Miles de euros

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Administración General de la CAPV | 11.047 | 11.071 |
| Diputación Foral de Bizkaia | 107 | 127 |
| Diputación Foral de Gipuzkoa | 39 | 49 |
| Diputación Foral de Álava | 18 | - |
| Unión Europea | 592 | 553 |
| Otros | 50 | - |
| **TOTAL** | **11.853** | **11.800** |

## A.5 GASTOS DE PERSONAL

El detalle del epígrafe Gastos de personal y de la plantilla de la cuenta de pérdidas y ganancias de los ejercicios 2017 y 2016 es:

Miles de euros

| | Gastos de Personal | | Plantilla a 31.12 | | Altos |
|---|---|---|---|---|---|
| | 2017 | 2016 | 2017 | 2016 | cargos |
| Sueldos y salarios | 8.074 | 7.804 | 188 | 195 | 1 |
| Cargas sociales y asimilados: | | | | | |
| Seguridad Social | 2.242 | 2.062 | | | |
| Otros | 58 | 73 | | | |
| **TOTAL** | **10.374** | **9.939** | **188** | **195** | **1** |

El incremento retributivo del ejercicio 2017 fue del 1% con respecto a las retribuciones íntegras del ejercicio 2016.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

## A.6 OTROS GASTOS DE LA ACTIVIDAD

El detalle de este epígrafe de la cuenta de resultados a 31 de diciembre de 2017 y 2016 es:

Miles de euros

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Arrendamientos y cánones | 48 | 34 |
| Reparaciones y conservación | 72 | 119 |
| Servicios de profesionales independientes | 2.606 | 3.372 |
| Transportes | 36 | 41 |
| Primas de seguros | 34 | 43 |
| Servicios bancarios y similares | 1 | 2 |
| Publicidad y propaganda | 4.794 | 4.010 |
| Suministros | 256 | 220 |
| Otros servicios | 1.115 | 1.476 |
| Otros gastos | 6 | 83 |
| **TOTAL** | **8.968** | **9.400** |

## A.7 ANÁLISIS DE CONTRATACIÓN

Hemos revisado los procedimientos legales aplicables a cada tipo de contrato a través de una muestra de expedientes adjudicados en 2017 y otros adjudicados en ejercicios anteriores con ejecución en 2017.

Miles de euros

| | Año | | Importe | | | DEFICIENCIA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| DESCRIPCIÓN | Ajd. | Proced. | V.E. | Adjudicación | Ejecución | A |
| 1. Diseño, construcción, montaje stands diversas ferias industria agroalimentaria en el año 2017 | 2016 | Abierto | 400 | p.u. | 254 | A1 |
| 2. Servicio de actuaciones para paliar problemas de tipo social, económico y cultural derivados de la contratación en origen | 2017 | Abierto | 155 | 155 | 161 | A1 |
| 3. Contratación del vuelo LIDAR en Euskadi | 2016 | Abierto | 209 | 171 | 171 | A1 |
| 4. Acuerdo Marco- Servicios de acompañamiento a personas emprendedoras sector agrario | 2016 | Abierto | 1.200 | p.u. | 182 | A1 |
| Lote 1-Araba | | | p.u. | 45 | | |
| Lote 1-Araba | | | p.u. | 26 | | |
| Lote 2-Bizkaia | | | p.u. | 96 | | |
| Lote 3-Gipuzkoa | | | p.u. | 118 | | |
| Lote 3-Gipuzkoa | | | p.u. | 64 | | |

p.u.: Precios unitarios.

Miles de euros

| DEFICIENCIAS | Nº | IMPORTE ADJUD. |
|---|---|---|
| EXPEDIENTE | | |
| A1 La fórmula utilizada para la valoración del criterio precio impide repartir el total de puntos | 4 | 326 |

Herri - Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

# ALEGACIONES A LOS RESULTADOS DE LA FISCALIZACIÓN DE LA FUNDACIÓN HAZI CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO 2017

## I. INTRODUCCIÓN

Al objeto de dar respuesta a los Resultados de la Fiscalización de la Fundación HAZI correspondiente a 2017, se presentan en este informe las alegaciones y justificaciones que la Fundación ha tenido a bien realizar en orden al asunto de referencia y que han sido centralizadas por la Oficina de Control Económico.

## II. OPINIÓN

### II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

PERSONAL

> *“La Fundación ha realizado un contrato laboral indefinido por encima de la tasa de reposición establecida en la Disposición Adicional Décima Sexta de la Ley 3/2017, de 27 de junio, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2017.”*

Después del proceso de fusión de las tres entidades que dieron origen a la Fundación Hazi en 2013, se generaron vacantes laborales en los primeros años de andadura de la misma, que no fueron atendidas, por un principio de prudencia y de contención presupuestaria, dado que la entidad estaba estructurándose y reflexionando sobre su nueva estrategia durante los años 2015 y 2016. A resultas de ello, se generaron nuevos servicios solicitados por el Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad, nuevas necesidades que condujeron a dicha contratación para una correcta estructuración de dichos ámbitos.

> *“La Fundación ha realizado repetidas veces contrataciones temporales para cubrir necesidades estructurales de plantilla, lo que ha provocado que en el año 2017, 10 trabajadores adquirieran la condición de personal laboral indefinido no fijo. Este proceso de consolidación de empleo temporal se ha realizado sin garantizar el cumplimiento de los principios de libre concurrencia, igualdad, mérito, capacidad y publicidad.”*

De los trabajadores en cuestión, ocho de ellos ya ostentaban de facto la condición de personal laboral indefinido no fijo, dado que su contratación se produjo antes del año 2013, fecha en la que se fusionaron las tres entidades que hoy constituyen la Fundación Hazi. Desde su fecha inicial de contratación no tuvieron ningún cambio en su contrato ni fueron contratados repetidas veces, sino que ha sido el paso de los años, lo que ha originado la adquisición de esa condición.

Respecto a los otros dos trabajadores, fueron contratados temporalmente con posterioridad a 2013, uno de ellos en proceso de selección que garantizaba el cumplimiento de los principios de libre concurrencia, igualdad, mérito, capacidad y publicidad, y la otra

persona proveniente de una bolsa de trabajo anterior a 2013, a la que había accedido por el mismo procedimiento.

Las circunstancias de su conversión a indefinidos vienen dadas por las necesidades concretas de cada situación, las que obligaron a la empresa a dotarse de dichos medios ante las necesidades de dar servicio.

# III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN

## III.1 PERSONAL

*"La Fundación ha realizado 5 contrataciones de personal temporal recurriendo a Lanbide y 7 utilizando bolsas de trabajo. En las primeras no se justifican adecuadamente las valoraciones asignadas a cada uno de los candidatos propuestos por Lanbide. Además, a partir de estos procesos selectivos se crean bolsas de trabajo, aspecto no previsto en la convocatoria. En cuanto a las contrataciones mediante bolsas de trabajo, en dos de los casos analizados se recurre a bolsas creadas para otra categoría. Sería conveniente regular los procedimientos de selección de personal temporal y el sistema de creación y funcionamiento de las bolsas de trabajo."*

En el procedimiento que se aplica las contrataciones señaladas han sido validadas por el representante del Comité de Empresa presente en las mismas. Las puntuaciones se consensuan en dicha mesa, no habiendo ninguna reclamación ni de candidatos ni de representantes de los trabajadores.

Los procedimientos de creación y funcionamiento de bolsas de trabajo con el resto de candidatos y de utilización de bolsas en áreas de la empresa análogas están establecidos, no habiendo ninguna reclamación por parte del Comité de Empresa en ese año por la creación y la utilización conjunta de otras bolsas.

## III.2 CONTRATACIÓN

*"La Fundación utiliza de forma generalizada una fórmula en la valoración del precio que impide que se repartan el total de puntos previstos para este criterio."*

En la fórmula aplicada mayoritariamente en HAZI (que no la única) si se reparten la totalidad de los puntos previstos para el criterio precio (en esta fórmula al mejor precio siempre se le asigna el máximo de puntos previsto, siempre y cuando no se incurra en baja anormal o desproporcionada cuando así se haya previsto en el pliego correspondiente).

Aunque es criterio consolidado que la fórmula debe "permitir" dar todos los puntos asignados al precio, finalmente puede no atribuirlos todos (según cómo se hayan comportado las ofertas).

El artículo 150-2 del texto refundido de la ley de contratos vigente en el ejercicio 2017 (Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre) en ningún caso propone, ni recoge fórmula tipo alguna que permita la evaluación de dichos criterios objetivos, de lo cual se deduce que el órgano de contratación tiene libertad para fijar los criterios de valoración siempre que cumpla con los criterios generales de igualdad, publicidad y libre concurrencia.

Existe una amplia controversia respecto a las formulas a aplicar, lo que configura un escenario de cierta confusión e incertidumbre, aunque se constata una tendencia compartida entre varias Juntas Consultivas de Contratación Administrativa y expertos en posicionarse a favor de las fórmulas “linealmente proporcionales”.

En adelante se intentará aplicar la fórmula que mejor se ajuste a cada caso, que cumpla con garantías los requerimientos de la normativa y/o principios de contratación pública y, a su vez, permita una adecuada y eficiente gestión de los fondos públicos.

Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Beato Tomás de Zumárraga, 69
01008 VITORIA-GASTEIZ
Tel. 945 016000 www.tvcp.org